



# SOROANDIETA BASERRIKO JUANE URZELAI

**A**rantzazu auzoko Soroandieta baserriko Juane Urzelai makiñatxo bat lanetan ibillitakua dogu; erlamaixu titulua be ipiñi otzain Arantzazuko frailiak, baiña zurlanetarako eta hargintzarako be esku ona dako gizon honek, eta lehengo kontu zaharren barri emuteko be apartako egogitasuna erakutsi dosku.

**- Arantzazu mendiko baserrittan erlia ugari ei zan garai batian?**

Bai, inguru honeittan baserri gehixago ziran erlak eukaiñak ez eukaiñak baiño. Izan be, erliak loria bihar izaten dau eta kastaña eta loria eukain beste landarak be ugari ziran hemen; klase askotakuak gafiñera, loria epoka diferentetan ekarten ebeiñak.

**- Soroandieta baserrixan noiztik euki izan dozue erlak?**

Gura aittajauna zana, Fraixko Anton, hasi zan erlagintzan. Orduan tronkuetan eukitten ebein erlak, geruago etorri zan kajetan ipintte hori. Hemen inguruan Arantzazuko frailiak hasi ziran eta nik be 1954 inguruan ipiñi nittuan kajak.

**- Orduan, zeu ibiltten ziñan erlamaixu?**

Beno, kajak konponketan eta zainketan neu ibiltten nintzan baiña, urtian behin, zemendiko hilberan, gure aittajaunak esaten eben moduan, eztixa kendu bihar zanian, etxeko danok jarduten geben lan

horretan.

**- Nun saltzen zebein eztixa?**

Gure ama ibiltten zan horretan eta azken ordurako ezti tratante konpletua egindda eguen. Epoka batian Oñatiko plazara etorten zan Berrizko emakume bateri astero 20 litro eruaten otzan berak saltzeko. Baiña hona be etorten zan jentia ezti billa, dendetarako, eta partikularrak be bai.

**- Erla asko dakozue?**


Beno, asko iaz dittugu, gehixen 42 inguru erla-moltzo edo ontzi. Baina orain asko gutxittu dira eta aurtan eztotzat eztirik kenduko, eurentzako lain besterik eztakoi eta.

*“Eztixa zemendiko  
hilberan kendu  
bihar izaten zan.”*

**- Beste ofiziorik izan dozu?**

Harotz edo hargin titulorik eztot sekula euki, baiña paretak jasoten, ardi txabolak egitten, zoruak botaten eta holakotan asko ibillitakua naiz.

**- Hemen inguruan egitten zebein horreik**



*Soroandieta baserri aurrian Juane Urzelai.*

**ala kanpora be urteten zebein?**

Ez, auzuan eta inguruetako baserrittan ibilli naiz beti, eta etxe inguruan gehixen bat, gure aittak esaten eben moduan “etxia dok lehenengo” eta.

**- Baserri hau zeuena da?**

Bai, gure aittak 42xan erosi eben, baiña lehen sankristau izan zan Antonio Iñarrarena ei zan. Nik ondo goguan dakot, behin bakarrik fan arren, mutikotan amandriari errentia eruaten lagundu notzala Korpusetan: gatzatua egitteko eztakitt zenbait esne eta gaiñetik dirua be bai. Hortik aparte, San Migeletan garixa eta urtiaren akaberan Gabonzalia be entregau bihar izaten zan.


**- Kalera zela faten ziñain orduan?**

Garai haretan astuan, zerbaitt eruan bihar gebenian; gero diarixua be jarri zan; uda partian eguardixan eta gabian eta neguan astian bi aldiz edo.

**- Nun hartzen zebein diarixua?**

Guk kanterako bidekurtzian hartzen geben, baiña artian ez eguen ganorazko biderik hemendik hara. Hogetamar bat urte

Araba Etorbidea, 4  
Tfnoa. 79 01 32  
ARRASATE  
9,00 - 13,00  
16,00 - 20,00




Olakua, 14  
Tfnoa. 71 60 00  
OÑATI  
16,00 - 20,00

ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA

• MAILA GUZTIAK  
• HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK  
• GOIZ ETA ARRATSALDEZ

HURBILDU ZAITEZ  
GURE BULEGOETARA!





besterik eztira izango bide hau urratu ebeilla, Arantzazuko obrak egin ebeñian.

Lehen senda txar, zaztar bat besterik ez eguen orain pistia hasten dan lekutik beheko kastañadaira, eta handik Zapiarbera, lehengo kaltzadaraño. Burdixakin kaletik zerbait ekarten zanian, Kortakoganian deskargau eta handik Gezaltzatik bueltan edo, bestela, Koronaziño ermitta ondolik Zapiarbetik behera ekarten geben.

#### - Kalerako jokerarik badakozu?

Ez, gutxittan faten naiz ni kalera, biharrezkua darian bakarrik. Orain lan askori jareta banau be, puntuan ardi batzuk kendu dittut eta, betik egoten da etxe inguruan zeregiña. Gazte denporan berriz, Arantzazura faten giñan; Sindikarako neukan jokeria, eta jokuan egitteko Milikuanian alkarketan giñan.

#### - Nungo eskolara fan ziñan umetan?

Arantzazukora, baiña ez denpora askuan. Badakitzu orduan zela izaten ziran gauzak: lau regla ikasitta nehikua izaten zan, eta etxian lana eguenian, ba bertan geratu bihar. Soldau denporan ikasi nittuan nik dakitten apurak.

#### - Nun egon ziñan soldau?

Lehenengo aldiz, gerra denporan eruan nindduañian, Andaluzian egon nintzan, frentian "primera linean", Peñarroya-ko ikatz miñak zainketan, eta gero Afrikan be bai. Eta bigarren aldiz, gerria akabo ondoren, berriz be eruan nindduain; Bittorixan egon nintzan beste hiru urtian.

#### - Zenbat urte egin zebeu ba, soldautzan?

Sei urte t'erdia danera, ixa gazte denporoa dana. Lehenengo, hiru urte t'erdia 42ko maiatzera arte eta urte horretako



zemendixan berriz be fan biharra izan neben. Soldauzka bixen arteko sei hillabetietan ikazkin bialdu nindduain Urbixa alde-  
ra.

- Sasue batian euskaldun asko Arabara faten ei zan erderaz ikastera; zuri tokau


Baltia baserrikua zan eta euskeraz ezekixen eta berarekin ikasiko nebela pentsau ebein, baiña bai zera! orduan eneben ezer ikasi. Eskolan **Historia Sagrada** be erderaz emuten oskuain. Dana buruz nekixen, baiña ze esaten neben konturatu barik.

Gero soldautzan erderaz ondo ikasi neben. Bihako ikasi han euskaldun barik tokau nintzan da; andaluzak eta estremeiñuak eta gaileguak danak. Baiña, andaluzen azentua hartu neben. Behin enterau nintzan beheko konpañiara euskaldunak etorri zirala eta hasi nintzan kuarteleruakin barriketan nun egozen edo jakin guran, eta harekin nenguela neuk entzun "hau behintzat, andaluzak dek" eta berihala jo neben eurakana, ni euskalduna nintzala esanaz.

*"Larra motzian  
ohittutakua naiz  
ni."*

xatzun halakorik?

Ez, ni txikittan Sindikara bialdu nindduain kria; hango ama Narbaxako



- Naturopata - Gustavo Etxebeste
- Estheticienna
- Talde terapia
- Masajea

**IZADI**  
**Belar Denda**

Olakua 1C - Tfnoa. 71 60 94  
OÑATI

**JON**  
**ARGAZKIGINTZA**

Kale-Barria, 28 behe  
Tfnoa. 78 24 81 • OÑATI

**MEKANIZATUETAN ESPEZIALISTAK**  
**FRESADORAK, TORNOAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**  
CBC-ren bidez era guztietako piezen hornidura

MEKALKI, S. COOP. LTDA. Zubillaga Industrialdea, 13. Tfnoa: 78 19 11 Faxe: 78 29 90 OÑATI